

bilbao museoa

BBKateak **Van Dyck –** **Zumeta**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao



Van Dyck – Zumeta

2. aretoa

Eraikin zaharra


0 solairua

Keinuak

Adierazpen eta keinu larrien katalogo oso bat, erregu-keinuetatik hasi eta babesgabetasuneraino, garatzen da Kristoren gorputz hilaren aurrean, kolore distiratsuak tragediaren intentsitatea arintzen duen eszenan. Zumetaren pintura neoespresionistak ere gatazka bat islatzen duela dirudi, keinu-tentsioak eta larritasun kromatikoak indartua kasu batean, eta erdiko zuriaren bidez neurtua bestean.

O Eraikin zaharra

0 solairua



Anton van Dyck

1599-1641

Anberesen ikasi zuen Hendrick van Balen eta Rubens maisuekin; hain zuzen, Rubensen laguntzaile izan zen, eta, harekin batera, Flandesko barrokoaren margolaririk garrantzitsuena da adituen ustez. Londresen egonaldi bat egin ostean, 1621ean sei hilabete egin zituen Italian, non Tiziano eta Veronese bezalako maisuak ezagutu zituen, eta hainbat hiritan ibili zen; arrakasta lortu zuen erretratuekin, Genovan batik bat. Anberesera itzulita, 1627etik 1632ra bitartean egin zituen eszena erlijiosorik onenak, eta mitologiaren gaia landu zuen, konposizio ikusgarrietan. Ingalaterrako Karlos I.ari esker iritsi zitzaion entzute handia, hark erretratu ugari enkargatu ostean. Van Dyck bere garaiko artista inspiratuenetakoa da, eta erretratugile finena.



Atsekabea Kristo hilgatik

c. 1627-1632. Olioa mihisean

Anberesen margotua, hauxe da agian Van Dyckek beste aldaera batzuetan ere garatu zuen gaiari buruz margotutako bertsioen artean ederrena. Hemen, Kristoren anatomia bikaina osatzeko, eredu eskultoriko klasikoetan oinarritu zen, hala nola Kapitolioko Museoetako *Tiberreko alegoria* edo *Galaziarra hilzorian* lanetan. Ama Birjinak magalean hartuta dauka semea, haurtzaroan bezala, begirada samindua zerurantz jaso duen bitartean. Akatsik gabe eta erritmikoki marraztuta dago, eta ilunabar-giroak ez du eragotzi kolore-masen tratamendu fina, dramatismo sakoneko antzerki-irudia lortuz.

1985ean eskuratua

José Luis Zumeta

1939-2020

Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan ikasi ondoren, 1959az geroztik Europako abangoardiak ezagutu zituen, Parisera, Stockholmera eta Londresera egindako bidaietan. 1966an Gaur taldea osatu zutenetako bat izan zen, Amable Arias, Rafael Balerdi, Néstor Basterretxea, Eduardo Chillida, Remigio Mendiburu eta Jorge Oteiza artistekin batera. Hasi berrian ekinaldi bat egin zuen figurazioan, 80ko hamarkadan kritika sozialera bihurritu zena, karikatura kutsuz, baina Zumetak espresionismo abstraktu sutsua garatu zuen geroztik, eta estilo horretako ordezkari onenetakoa da. Horregatik, funtsezko figura da euskal abangardia artistikoaren bilakaera ulertu ahal izateko.



Pintura

1961. Olioa konglomeratuari itsatsitako mihisean

Espainiako informalismoak argi-iluna bereizgarri zuen bitartean, XX. mendearen bigarren erdiko euskal pintoreek kolorearekiko interesa lehenetsi zuten, kolorea aske bezain erradikal adierazteko gogoia; horren erakusgarri da Zumetaren hasieretako lan hau. Bertatik bertara ezagutu zuen Cobra taldearen esperientzia abstraktuak eraginda, mihise honetan konposizio estutua proposatu zuen, keinu-adieraz eta erritmoz betetako sekuentzia osatzen duten kolore zerrenda horizontal paralelo trinkoak elkarren gainean ezarrita.

1982an eskuratua



Pintura

c. 1971. Olioa oholari itsatsitako mihisean

Taulari erantsitako mihise hau egindako urte berean erosi zuen museoak. Erabateko abstrakzioa irudikatu zuen orduan, tonu biziak kolore beltzeko erreserben aurka nabarmentzen direla, konposizio-tentsio indartsua eragiten duten masak osatuz. Abstrakzio oldarkor hori grinak bultzatutako keinuetan oinarritu zen, konposizioari mugimendua ezarri zioten pintzelkada zabal eta azkarrekin. Badirudi indarkeria horrek frankismoaren azken urteetako gatazka-giroa islatzen duela, Zumeta Mexikon eta AEBetan erakusketak egiten ari zen garaian.

1971n eskuratua



Pintura

1977. Olioa mihisean

Ohiko keinu-adieretz baliatu arren, adierazte mailan kolore-orban primarioekin hautsitako kromatismo goibela erabilita, ematen du obra hau adimenetik askatutako primitibotasunera eta inkontzientera hurbildu dela. Gainera, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako europar informalismora gerturatze bat azaleratzen du. Zumetaren ibilbidearen barruan, 70eko hamarkadaren hasierako oldarkortasun kromatika desbideratu izanaren adibidea da, sosegurantz, materia, kolorea eta keinua gogoetan batzerantz. Era horretan, dramatismoak barruan eutsitako emozioei bide ematen die.

1978an eskuratua

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.